

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Hiri berritze
plana /08**

KIROLA

**Jesus Arroiabe
tiratzailea /09**

LEINTZ GATZAGA

**Andramaixaei
gainbegiratua /10**



SPINNINGA IKASTEKO GRINA

**IKASTARO BERRIA KIROL
ETXEAN ASTELEHENETIK AURRERA**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 11
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 12
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Basotxo 943 77 09 81

Euskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzailea 943 71 18 62

Hezibide elkarte 934 79 31 32

Industrialdea 943 79 62 80

Institutua 943 79 79 00

Kirol etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI 943 79 57 40

KZGunea 943 79 94 44

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murruxio ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 71 19 59

Otalora 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00

Taxi geltokia 943 77 12 64

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udalzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAIINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaintza 943 53 47 20

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdia 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Ohati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:30

Zapatuetan: 19:30

Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO

Domekan 11:30ean.

MENDIOLA

Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GELLAO

Domekan 12:30ean.

OHARRAK

AREANTZA AUZOKO JAIK

Andramari jaiak ospatuko dituzte Areantza auzoan. Gaur, egubakoitza, 20:00etan Martin Kabarrixa jasoko dute tantaian, eta 20:30ean auzo afaria egingo dute; afalostean, orain dela 500 urteko kontuak eta dantzaldia. Bihar, zapatua, 12:00etan meza nagusia eta ondoren luntxa egongo dira; 13:30ean 20. ginkana txapelketa eta 18:00etatik aurrera Areantzako jolasak. Domekan, Kurtzebarriira joango dira 09:30ean aterata, eta 14:30ean tantaia kenduko dute.

KURTZEARRI EGUNA

Domekan izango da Kurtzebarri eguna: 11:00etan salda emango dute tontorrean, eta 11:30ean meza. Ostean mokadutxo eskainiko du Murruxio MEk. 13:00etan Mendiolarra jaitsiko dira.

PIRAGUA IRTEERA

Murillo de Gallegora egingo du piragua irteera Murruxio MEk. Izena emateko Azkena tabernara jo.

MUNDUKO DANTZEN IKASTAROA

Kapoeira, cumbia, Karibeko dantzak... erakutsiko dituzte irailaren 21ean hasi eta Gabonak bitartean martitzenetan, 20:00etatik 21:30era, Kurtzebarri eskolan. Izena emateko Azkena edo Express tabernetara edo kultura etxera jo.

LORAMENDIRENAGENDA

GRAFITI LEHIAKETA

Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketa antolatu du Topaguneak. Gaia euskara izango da eta teknika librea. Zirriborroak irailaren 25a baino lehen bidali behar dira. 1.200 euroko lau sari egongo dira. Loramendi EEn galdetu.

SAN MIGELETARAKO LAGUNTZA

San Migel jaiak prestatzeko herritarren laguntza behar du Loramendi EEk.

ORAINDELA 84 URTE ARETXABALETAN

Udalbatzak erromesaldia egin zuen Arantzazura

Oinez joaten ziren herritarrak Arantzazura iraileko lehen astelehenean. 1920ko irailaren 4an, zapatua, bidea garbitu zuen Udalak domekan Arantzazura joateko. Santutegian egin zuen lo udalbatzak, eta hurrengo egunean, irailak 6, meza entzun eta argazkia atera zuten frantziskotarrek.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Eraxxi”

1. Esnea jeitsi behiak errapera.
— *Beixak, jasteillia ezezauna dalako ero, batzutan esnia jaso eitten dau ta ezin izaten da ezer eñ aiketa berriz eraxxi arte.*
2. Jetzi, eraitsi, bildu.
— *Aittak beixak erasten diardu.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- Gazteendako liburuak**
- 'Usoa: Karpeta morea' / Patxi Zubizarreta
 - 'Usoa: Bidaia kilikagarria' / Patxi Zubizarreta
 - 'Eta ni zer?' / Fernando Morillo
 - 'Eskale txikiak' / Gianni Rodari
 - 'Yako eta haizea' / Ixiar Rqzas
 - 'Logurepeko munstroak' / Arrate Egaña
 - 'Ilargia.com' / Care Santos
 - 'Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa: joeli buruzko hirugarren kontakizuna' / Henning Mankell
 - 'Magoaren gatibua' / Michel Girin
 - 'Ispilu veneziarrak' / Joan Manuel Gisbert
 - 'Egunerokoa lokatz-eremuan' / Ricardo Gómez
 - 'Koadroko emakumearen bila' / Roser Barrufet i Soldevila
 - 'Gerrateko ogia' / Deborah Ellis
 - 'Pertseo eta Medusaren burua' / Nathaniel Hawthorne
 - 'Oroimenaren azala' / Jordi Sierra i Fabra
 - 'Azken gurasoak' / Aitor Arana
 - 'Dorretxe zaharreko misterioa' / Fernando Morillo

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA

Zorion agurrak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

EGUZZKIGRAF
inprimategia

7:30etik 12:30era
14:00etatik 17:15era

25. urteurrena

1979-2004

ATREBENTZIA EZ PADA / Iraillien ataraten dittuen koleziñorik egitten dozu? Buketu dozu sekule?



JESSICA DASILVA
Ikaslie

Ez, aurten ez. Bilddurrezko pelikulen koleziñue egitten hasi nitzen behin, baiñe ez neuen buketu; hortan, gureu dot ez egin. Anaie bai sarri hasi izen da, baiñe buketu sekule be ez.




MIREN ERDOZIA
Langillie

Ez, ez aurten, ezta sekule be. Batetik ez dauket astirik koleziño bat egitten haste-ko, eta bestetik ez dustie iñolako interesik sortzen ofreziduten dittuen produktuek.




IDURRE URIBARREN
Langillie

Ez, ez dauket ohituraik eta ez dot sekule egin. Badakit koleziño asko ataraten dittuela baiñe ez jat bat be gustau izen. Noizpait lelen-gue hartu dot, baiñe gero ez dot jarraitu.



KEPA MENDIETA
Langillie

Ez, ez dot sekule egin eta aurten be ez naz hasi egitten, ez dustie-eta interesik sortu. Baten bat hasitte be ez neukela buketu-ko uste dot, hortan, gureu dot ez hasi.



IKER BERNAL
Langillie

Bai, automobillek eta motorrak gustetan jat eta horretxeik egin izen dittut. Aurten be autuena egitten hasi naz. Hasitteko danak ez dittut bukatu, baiñe gustoko dittudanak bai.



JOSE IGNACIO BARBERO
Langillie

Ez, ez dustie interesik sortu izen, eta egunkarixe domeketan bakarrik hartzen dotenez ez naz sekule hasi. Hori bai, oin urte batzuk egunkarixek ekarritteko koleziño batzuk egin nittuen.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK UDA ELKARTEAN BERRIKUNTZAK Denboraldi berria jarri du abian Aretxabaleta Kirol Elkartek, UDAk, eta berrikuntza ugari izango dituztela iragarri dute. Orain hilabete batzuk arte desagertzeaz egon den elkarte indarrez gainezka eta proiektu berriak abian jartzeko gogoz dator. Zuzendaritza batzordean lanean dabil-tzan guztiak, gainera, borondatez sartu dira. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 04

Andramaixak Areantzan

Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte aste bukaeran Areantzan. Ekitaldi ugari egingo dituzte.

ASTEAN BEHIN / 05

Errromesaldia Arantzazura

Bai udalbatzak, bai herritarrek errromesaldia egin zuten astelehenean, irailak 6, Arantzazura.

KIROLAK / 06

Ikasturterako kirol ikastaroak

Astelehenean hasiko dituzte ikastaroak kirol etxean. Urterokoez gain, aurten bi berriak dira.

ASTEKODATUA

15

BIZIKLETA EROSI DITU UDALAK SPINNINGA EGITEKO

Ikastaro berriak antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak, tartean, spinninga. Bizikleta gainean gimnasia egitean datza kirol hori, eta horretarako 15 bizikleta ekarri dituzte kirol etxera.

BESTEKEKESANA


“Aurtengo dagoeneko ez daukat beste planik, hemen etxe inguruan ibiliko naiz eta gurako nuke

poliki-poliki hurrengo urtean egingo dudanarekin pentsatzen hastea. Nepaleko egoera oso momentu kritikoa dago, hortaz, ez dakit datorren urtean Nepalera bisitarik egiterik egongo den edo ez; gauzak oso berde daude urtebete lehenago pentsatzen hasteko.

Familian pentsatzen hastea tokatu zait. Aita izatea esperientzia polita izan da eta momentuz oso ondo moldatzen gabilta. Ez dakit umea edukitzeak mendizale bizitzan eragin didan edo apur bat nekatuta nentorren azken urteotako erritmoarekin, baina egia da azken bi urteetan erritmoa izugarri jaitsi dudala; ez naiz damutzen, gainera.

ALBERTO INURRATEGI
Arrasate Irratia/04-09-02

HERRITARRENBERBAK / Fernando Berrizbeitia



Inozoa ala miserablea?

Idazten ari naizena argitaratzen denerako aipatuko dudan berriak gaurkotatzen guztiz galduta edukiko du. Gure garai hauetan azkarregi doa dena eta informazioaren zurrundiloak berehala irensten ditu notiziak nahiz eta hauek oso gogorrak izan. Errusia inguruko eskola horretan gertatutakoaz ari naiz. Honez gero galdu dut zenbakien nozioa. Grabatuta geratu zaizkidanak, berriz, ikusitako irudiak dira, gehien bat aurpegiak: amorrua, etsipena, beldurra, tristura, errukitasuna... Giza emozioen tratatu grafikoak ziren egunkariak. Guretzat izenik gabeko aurpegiak, gugandik urruti sufritzen lagako ditugunak. Eta, betikoa: *ez dut ulertzen, nola liteke, zeinek kulpa...?* Baina *berriro libratu gara* sentsazio hori gure barrenean itsatsita.

Mundua eta gaitza. Hori gai potoloa! Orain dela ez asko irakurri nuen munduan dagoen gaitza ulertzeko

hauetako bat pentsatu daitekeela: edo Jainkoak ezin duela ezer egin beratu ekiditeko eta kasu horretan gizajo bat da, edo Jainkoak gaitza saihesteko aukera baduela baina ez duela nahi, eta kasu honetan miserable hutsa dela. Bada hirugarren

aukera bat: Jainkorik ez egotea. Nik azken honekin egiten dut bat. Hala ere, berdin da. Ez du ematen gure sineskerak edo sineskera ezak mundu zital hau aldatzeko ahalmena duenik.

Baina, Jainkoa erditik kendu dezagun (inon bada) eta beste era batez planteatu kuestioa: mundu honetako agintariak (benetako agintarixetaz ari naiz, ez agintarixetaz) inpotenteak dira (gaitzaren aurrean), eta, beraz gizajoak, edota badaukate zerbait egiteko aukera eta ez dute ezer egin nahi, hau da, miserable hutsak dira?

Beste mundu bat posible da entzuten da gero eta ozenago. Ni ados nago.

“Ez du ematen gure sineskerak edo sineskera ezak mundu zital hau aldatzeko ahalmena duenik”



M. J. Aretxaga

Danok eskolara

Irailien edo agorrien bete-betien sartute gaz, eta dagueneko bakotxa bere lekuen dau: batzuk lanien eta beste batzuk eskolan. Gogorra izen da bueltie, baiñe bueltau barik ezin hartu hurrengo oporrik. Batzuk, gaiñera, nehikue gorabehera izen daue abuztuen, bestela galdetu deixola baten batek **Alberto Etxebarriari** etorri barri da-eta. Txino artien ibilli ei da...

Omenalditxue jaso daue beste batzuk: Larrinoko **Pedro Bengoa** eta **Frantziska Lete** senar-emaztiekin, hain zuzen. Ez dot uste opor asko izengo zittuztenik honeik beti ardixekin lanien... Sarrixau akordau biherko giñake hainbeste urtien lanien ibillittekuekin.

Iraille ez daixen hain gogorra izen jai batzuk dittugu tartien. Lelengokue domekan, Kurtzebarri egune da-eta. Egualdi ona egiñez gero giro paregabie egongo da kurtzien bueltan. San Migelak hurrengokuek, eta segittuen dittugu gaiñien. Aurten, gaiñera, ez ei da Beinke-Loramendi dantzarik egingo. Izugarritzko penie emun dust barrixek, giro bikaiñe sortzen zalako plazan dantzien inguruen. Baiñe herritarrok be badaukou kulpie gero eta gutxiauk hartzen geuen eta parte. Kulpie dauken bat neu.

JAIK/ Udalak, Aitor Antxiaren laguntzarekin, Areantzako parrokiaren historia jasotzen duen esku-orria atera du

Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoko bizilagunek asteburuan

MIRARI ALTUBE

Auzoko jaiak ospatuko dituzte Areantzan aste bukaeran. Urtero moduan egitarau dotorea antolatu dute eta hainbat ekitaldi izango dituzte hiru egunean. Aurten, gainera, Areantzako orain dela 500 urteko kontuak ekarriko dituzte gogora.

Auzoetan ez dira garai bateko jaiak egiten, baina gehienetan oraindik ospakizunen bat edo beste egiteko ohitura dute zaindariaren egunean. Areantzarek jai dotoreak antolatu izan dituzte azken urteotan, eta aurten ere halaxe egin dute.


MARTIN KABARRIXA

Eguaztenean, Amabirjinaren egunean, hasi zituzten jaiak, baina asteburuan egingo dituzte ospakizun garrantzitsuenak. Gaur, egubakoitza, 20:00etan Martin Kabarrixa jasoko dute tantaian. Kurtzebarri azpian zegoen Kabarrixa izeneko baserriaren bizitako azken bizilaguna izan zen Martin. Zumarragarra jaiotzez, 30en bat urte egon zen Areantzan, eta lapur fama ei zuen, beharrak eraginda seguru asko, auzotarren esanetan. Orain 15 bat urte auzoko jaiak piztu guran tantaia jasotzea erabaki zuten, eta zer jarriko puntan eta Martin Kabarrixa bera. Hala, auzoko alkate izendatzen dute hiru egunetarako.

Auzo afaria egingo dute gero: patatak txorizoarekin, oilaskoa letxugarekin eta goxua izango dituzte. Afalosteko tertulia, osterara, Aitor Antxiak girotuko die; izan ere, auzoko orain dela 500 urteko kontuak kontatuko dizkie. Lotara joan aurretik dantzaldia ere izango dute.

ZAPATUAN JOKOAK

Auzoko musikariek emango diote zapatuari ongietorria, eta 12:00etan meza nagusia izango dute abesbatzaren laguntzarekin. Horren ostean, luntxa jarriko dute auzoko produktuekin. Zapatuan, baina, jokoak izango dira protagonista, adin guztietara ego-



RESU ABASOLO

Auzoko jokoak izango dira protagonista bihar, zapatua, Areantzako Andramaixa jaietan.

kitutakoak. 13:30ean 20. ginkana txapelketa egongo da, eta arratsaldean, 18:00etan Areantzako jolasak: txapel jaurtiketa, itsulapikoa betetzea, iltzeak sartzea... Gero, 19. aro-sartze txapelketa egingo dute, eta jokoetan parte

hartzen dutenek sari bikainak izango dituzte.

DOMEKAN KURTZEBARRIRA

Domekan, irailak 12, Kurtzebarri mendiko eguna izanda haraxe joango dira Areantzako auzota-

rrak ere. 09:30ak inguruan abiatu eta 12:00etan argazkia aterako dute tontorrean. Bueltan, 14:30ak inguruan, Martin Kabarrixa jaitsi, tantaia kendu eta jaietara bukaera emango diete hurrengo urtera arte.

XV. mende bukaerako datuak

Beste auzo batzuetako parrokiekin egin bezala Aretxabaletako Udalak Areantzako Andramari parrokiaren gaineko esku-orria argitaratu du. Aitor Antxia Leturiak batu ditu historiari dagokion datuak eta argazkiak, osterara, Aretxabaletako Argazki Taldearenak dira.

Areantzako parrokiaren aipamenik zaharrena XV. mende bukaerakoa da, nahiz eta auzoaren izena



ANDRAMARI ELIZA
AREANTZA

Areantza izan beharrea Salgo jarri dokumentuetan. XVI. mende hasieran agertu zen Areantza izena.

Parrokiaren berezitasunik aipagarrienak, bestalde, honakoak dira: XV. mendeko sagrario gotikoa, barroko estiloko San Pedroren taila eta XV. mendeko San Sebastianen taila.

Hori guztia eta gehiago kontatuko dizkie gaur Aitor Antxiak auzotarrei.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero




- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

ERROMESALDIA/ Iraileko lehen astelehenean joaten dira aretxabaletarrak Arantzazura

Erromesaldia egin zuten herritarrek Arantzazura

M.A.

Aspaldiko ohitura da irailako lehen astelehenean Arantzazura erromesaldia egitea. Batzuk oinez, beste batzuk autobusean eta azkenak norberaren autoan aurten ere herritar ugari izan dira. Udalbatzako kideek ere meza entzun eta bertan bazkaldu zuten.

Atzo, eguna, Arantzazuko Amaren eguna izan zen, gipuzkoarren zaindaria. Aretxabaletarrak aspalditik joaten dira irailako lehen astelehenean, bederatziru-renaren barruan, Arantzazura. Aurten ere halaxe egin dute.

MEZA ETA BAZKARIA

Urtero joaten da udalbatza, eta aurten bost zinegotzi izan ziren alkatearekin batera: Aralarreko hiru eta EAJko beste hiru. Horietako hiru, gainera, Martin Garai udaltzain buruarekin batera oinez joan ziren. PP eta PSE/EEko zinegotziek joango zirela esan zuten baina ez ziren agertu. Herritarrek, bestalde, Basotxo Erretiratuaren Elkarteak antolatutako bi autobusetan, oinez eta autoetan joan ziren. Jesus Ortiz de Urbina



Udalbatza hainbat teknikarirekin batera astelehenean Arantzazuko Santutegian.

parrokoak esan zuen meza, Pablo Letona abadearen eta frantziskotarren laguntzarekin.

Mezaren ostean, bazkaltzera joan ziren guztiak; udalbatzako

kideak, hainbat Udal Teknikarirekin batera, Zelai-Zabal jatetxera azken urteotan egin ohi duten bezala, eta autobusetan joandako herritarrek Hospederiara.

KZGuneak hainbat ikastaro eskainiko ditu irailan zehar

M.A.

Hainbat ikastaro antolatu ditu Aretxabaletako KZGuneak irailerako: Internet bidez zela lan egin bankuarekin, zela bidali postalak... Eta oinarrizko ikastaroak ere emango dituzte Interneten gainean oraindik ezer ez dakitenendako.

Oporrak bukatu eta gero dagoneko ohiko ordutegia du KZGuneak, hau da, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Nor-

bera Interneten ibiltzeko aukeraz gain hainbat ikastaro eskaini ditu KZGuneak irailerako. Doan izango dira, gainera, guztiak.

IKASTAROAK

Zela lan egin bankuarekin Internet bidez ikastaroa emango dute irailaren 20an eta 21ean, 18:00etatik 20:00etara. Internet bidez postalak bidaltzen erakutsiko dute irailaren 22an, eta ezagunekin zela jarri harremanetan irailaren 23an eta 24an; mikrofonoak, bozgorailuak eta kamerak erabiliko

dituzte horretarako. Hilaren 27tik urriaren 8ra bitartean, bestalde, oinarrizko Internet ikastaroa emango dute 18:00etatik 20:00etara ezer ez dakitenendako.

IT TXARTELA

Interneteko ezagutzak baieztatzeko IT txartela ematen du ESik (European Software Institute). Horretarako test bidezko azterketa gainditu behar da, eta edozein aurkez daiteke. Irailaren 20an egingo dute 11:00etatik 13:00etara bitartean KZGunean bertan.

LABUR

Munduko dantzak erakutsiko dituzte irailaren 21etik aurrera Gozatu Ekimenak antolatuta

Munduko hainbat herrialdeetako dantzak ezagutzeko ikastaroa antolatu du Gozatu Ekimenak. Brasilgo kapoeira, Kolonbiako cumbia, Karibeko dantzak... irakatsiko ditu Magdalena Milano Venezuelako irakasleak irailaren 21etik Gabonak bitartean. Kurtzebarri eskolan emango dute ikastaroa martitzenetan, 20:00etatik 21:30era. Izena eman gura duenak Azkena edo Express tabernetara jo dezala edo kultura etxetik pasatu irailaren 17a baino lehen. Matrikula 35 euro ordaindu beharko dute interesatuek; 25 euro ikasleak edo langabeak badira.

Aurten ez dute Beinke-Loramendi dantzarik egingo herriko plazan San Migel jaietan

Iraileko azken asteburuan San Migel jaiak ospatuko ditugu. Kultura Sailak eta Loramendi EEK elkarrekin antolatzen dituzte eta zapatu ilunkaran Beinke-Loramendi dantza egin izan da 1994az gero. Aurten, ostera, ez dute egingo. Loramendi EEko arduradunen esanetan gero eta herritar gutxiagok hartzen du parte eta dantzak zentzua galdu du. Horren ordez izugarritzko erromeria antolatu dute hilaren 25erako Tapia eta Leturiaren laguntzarekin.

TXUTXU-MUTXUA



Omenaldia Pedro Bengoa eta Frantziska Leteri


Omenaldi beroa eskaini zieten Larrinoko Urtzabal baserriko Pedro Bengoa eta Frantziska Lete senar-emazteei domekan Legazpin. Urte askoan ardiekin egindako lana saritu gura izan die, beste hiru artzainekin batera, aurtengo Gipuzkoako Artzain Egunean. Pedro 14 urterekin hasi zen artzaintzan eta Frantziska emaztea izan zuen lagun ezkondu ostean. Oraindik 60 bat ardi dituzte baina suhia arduratzen da kontu horietaz. /M.A.

Arotz lanetan behar duzun guztia



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA




**Angelines
AUTOZERBITZUA**

**Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea**

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

**Markoztatze
profesionala
prezio ezin hobean!**

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea



KIROL IKASTAROKAK

Kirol ikastaro berriak antolatu ditu datorren ikasturterako Udalak

Spinninga egiteko aukera egongo da eta banakako entrenamendu saioak eskainiko dituzte

M.A.


Astelehenean, irailak 13, jarriko dituzte abian 2004-2005 ikasturterako ikastaroak kirol etxean. Aurten, gainera, berriak izango dira bi: spinninga eta banakako entrenamendu saioak. Izena eman gura duenak aukera dauka oraindik, kirol etxera deituta.

Ikasturte berria hasi dute kirol etxean eta urteroko kirol eskaintzaz gain ikastaro berriak antolatu dituzte: spinninga eta banakako entrenamendu saioak.

IKASTARO BERRIAK

Astelehenean hasiko dituzte ikastaro guztiak, baita spinninga eta banakako entrenamendu saioak ere. Bizikleta gainean gimnasia egitea da spinninga, eta horretarako 15 bizikleta ekarri dituzte. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena, eta ikastaroak interes handia sortu duenez hainbat talde egin dituzte.

Banakako entrenamendu saioarekin, bestalde, kirola modu egokian egiten lagunduko duen zerbitzua jarri gura izan dute. Horretarako banakako elkarrizketak egingo dituzte eta ondoren osasun azterketa egingo dute: oinarrikoa edo osoa aukeran. Azterketak egiteko Arrasatera joan beharko dute kirolariek, baina azterketaren balorazioa eta jarraipena Aretxabaletan bertan egingo diote. Oinarritzko azterketa



Bixen Calzon aretxabaletarra izango da spinningeko irakaslea kirol etxean.

60 euro ordaindu beharko dute erabiltzaileek eta osoa 75 euro.

URTEROKO IKASTAROKAK

Kirol ikastaro berriez gain urtero eskaintzen dituzten ikastaroak emango dituzte kirol etxean: sasoiari egoteko gimnasia, hirugarren adinekoendako gimnasia, aerobika, igeriketa, aquagyma, Atzegikoendako gimnasia, kara-

tea eta aerobika edo sasoiari egoteko gimnasia -bietako bat aukeran- spinningarekin batera.

Ikastaroetan izena emateko lehenbailehen joan behar da kirol etxera, astelehenean hasiko dira eta gehienak. Bestalde, bazkide orain egiten direnek %50eko beherapena izango dute abonuen prezioetan, eta azaroaren 1etik aurrera %75eko beherapena.

MENDIA

Kurtzebarri eguna ospatuko dute domekan, Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatuta

Domekan, irailak 12, Kurtzebarri mendiaren eguna ospatuko dute aretxabaletarrek Murrukixo MEren eskutik. Antolatzaileek ez dute irteerarik antolatu, hortaz, nor bere aldetik igoko da. 11:00etan salda emango dute tontorrean, eta 11:30ean meza. Ostean, mokadutxoia egiteko aukera izango dute igotakoek: txorixoa, gazta eta xanpaina egongo dira. 13:00ak inguruan, ostera, Mendiolara jaitsiko dira. Eguraldi txarra eginez gero antolatzaileek erabakiko dute zer egin.

KARATEA

Karate eskolakoek martitzenean hasiko dituzte entrenamendu saioak kirol etxean

Martitzenean, irailak 14, hasiko dituzte entrenamendu saioak Karate eskolako kideek. Lehenengo astean karatelari guztiak batera elkartuko dira, baina gero talde bi egingo dituzte: 6 urtetik 11 urte bitartekoek 18:45etik 19:45era izango dituzte saioak, eta 11 urtetik gorakoek 19:45etik 21:00etara. Iaz 24 lagun ibili ziren karate eskoletan, eta aurten oraindik izena emateko aukera daukate interesatuek; horretarako kirol etxera deitu, 943 71 26 28.

PIRAGUA

Piragua irteera antolatu du Murrukixo MEk Murillo de Gallegora irailaren 18 eta 19rako

Piragua irteera egingo du Murrukixo MEk irailaren 18an eta 19an Zaragozako probintzian dagoen Murillo de Gallegora. Irailaren 18an, zapatua, aterako dira 09:00etan Azbeko geltokitik eta ailegatzera kanoi jaitsiera egingo dute; 19an, domeka, ostera, piragua jaitsiera. 15 lagunendako tokia dago, hortaz, lehenbailehen eman behar dute izena interesatuek Azkena tabernan. Izena ematerakoan 20 euroko fidantza utzi behar da.

FUTBOLA

Lehenengo partidua galduta hasi du futbol denboraldia preferenteko taldeak

Azken bi denboraldietan gertatu bezala lehenengo partidua galdu egin zuen UDAko preferenteko taldeak. Ez zuen partidu kaskarra egin baina 0-3ko emaitzarekin itzuli zen Hondarribiatik. Domekan, Trintxerpe taldea izango du aurrez aurre Ibarren, 16:30ean.

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETAKA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETAKA
Tel.: 943 79 04 39

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETAKA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
AretxabaletakA
Tel.: 943 77 11 76

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAKA

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETAKA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
- Kraneala
- Estrukturala
- Funtzionala
- Lotura muskularrak

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • AretxabaletakA
943 79 10 14

Esko Sport

Zure konfidantzako denda

Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96

trang world

TUCKLAND

SALOMON

TERNUA
Outdoor Gear

ASTORE

adidas

ERRETRATUZHARRA

Areantzako bizilagunak Kurtzebarrin

Kurtzebarri mendiaren eguna ospatuko dugu domekan, irailak 12, eta Murrukixo Mendizale Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu gurutzearen inguruan. Herritar ugari hurreratu-ko da tontorrera, eguraldiak lagun-tzen badu behintzat. Inguruko auzoetako bizilagunak ere ez da faltako; Areantzako auzotarrak, baina, nor bere aldetik joan beharrean elkarrekin joango dira, azken urteotan egin ohi duten moduan. Izan ere, asteburuan ospatuko dituzten jaien egitarauaren barruan sartzen dute Kurtzebarrira igoera.

Erretratua ez da oso zaharra, 1988ko irailaren 11n ateratakoa, hain zuzen, baina bai auzotarrak elkarrekin joaten hasi ziren lehenengo urteetako. Kurtzebarrira joan bakarrik ez, tontorrean argazkia ateratzeko ohitura dute, eta aurten ere halaxe egingo dute. "Ez naiz oso ondo gogoratzen noiz hasi ginen Kurtzebarrira joaten, baina auzoko jaiekin batera tokatzen zitzaigunez egitarauan sartzea erabaki genuen. Ordutik hona, uste dut urte baten bakarrik egin dugula huts; izugarri-ko euri jasak egin zituen orduan, eta gurutzearn egiten duten ospakizuna ere ez zuten egin", dio Julen Abasolo areantzarrak. "Urtero batzen gara auzotarrez osatutako taldetxoak; iaz, esaterako, 40 lagunetik gora joan ginen, baina Kurtzebarriren 75.



urteurrena ospatu zela hartu behar da kontuan".

Ezkerretik hasita, honakoak daude Kurtzebarriko gurutzearn inguruan: Luis Anduaga, Haritz Anduaga, Arantzazu Abasolo, Agustin Abasolo atzera begira, Felix

Zugasti, Dabid Berezibar, Jon Zugasti, Eneko Garai, Nerea Anduaga behean, Gorka Madinabeitia, Begoña Urkia, Pakita Perez, Eba Madinabeitia, Lorea Uriarte, Xabier Abasolo, Iñaki, Julen Abasolo, Jose Ramon Uribetxebarria, atzean Mila Abasolo

eta Jesus Agirre, eta gurutzera igota Hilda Madinabeitia.

Argazkia: Resu Abasolo
Informazioa: Julen Abasolo
Urtea: 1988ko irailaren 11



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 10a / 177. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udala, Hiri Berritzeko Planaren barruko lanak zeintzuk izango diren aztertzen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hiri Berritze Planari buruzko datuak jakinarazi ditu Udalak. Izan ere, bere asmoez gain, herritarrek zeren beharra ikusten duten jakin gura izan du. Zenbait lan egiteko eskaera izartu programaren barruan sartu ditu; beste batzuk, baina, inbertsio eta hirigintzan.

Hiri Berritze Planari buruzko datuak eman ditu aste honetan Eskoriatzako Udalak.

Herriko hainbat gunetako bizilagunekin bildu zen Udala uztailan, eta haiek guneko bakoitzean ze lan egitea gura duten jakinarazi zieten udal ordezkariari. Ondoren, Udal batzordeak eskaerak aztertu ditu eta hil honetan, euren erabakia jakinaraziko diete herritarrei. Hala, ordezkariekin bilduko dira berriz, "haiek ere izango baitute zer esan gure erabakien gainean, eta elkarlana garrantzitsua denez, eurekin elkartzekoak gara", adierazi du Juan Carlos Bengoa alkateak.

Udalak Izartu planetik jasotako diruarekin hainbat guneko bizilagunen zenbait eskaera lan horien barruan



Espaloiak konpontzea izan da hainbat gunetako bizilagunen eskaera.

sartu ditu. 120.000 euroko aurrekontua du Udalak aurten, eta horiek banatzeko orduan, guneko bakoitzeko biztanle kopurua hartuko dute kontuan.

Beste eskaerei dagokienez, Aranburuzabal, esaterako, solte dauden galtzada-harriak konpontzea eta hondoratuta dauden espaloi zatiak konpondu eta zabal-

tzea gura dute bizilagunek. San Pedro eta Intxaurtxueta gunetarako, besteak beste, eserleku eta kale-argiak jartzea eta 44 aparkaleku berri sortzea dira eskaerak.

Udalak 120.000 euroko aurrekontua du; gunetako biztanle kopuruaren arabera banatuko du

Batzordearen erabakia bizilagunei jakinarazi, eta bien artean adostuko dituzte lanak

Lan batzuk Izartu planaren barruan sartuko dituzte; besteak inbertsio eta hirigintza barruan

Patinaje ikastaroa eta pintura tailerra aukeran eskoriatzarrek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Margotzen ikasteko pintura tailerra; irristatzen ikasteko patinaje ikastaroa. Bi horiek antolatu ditu Eskoriatzako Udalak datozen hilabeteetarako. Bestalde, yoga egiten ere ikas dezakete eskoriatzarrek; astelehenean hasi ziren Lydia Garcíaren eskutik eskolak.

Hainbat ikastaro antolatu ditu Eskoriatzako Udalak datozen hilabeteetarako. Batetik, helduentzako patinaje ikastaroan parte

hartzeko aukera izango dute eskoriatzarrek. Irailaren 19an eta 26an eta urriaren 3an, 10ean eta 16an pilotalekuan emango dituzte patinaje eskolak.

Hastapen maila eskainiko dute 10:30etik 12:00etara eta sakontze maila, berriz, 12:00etatik 13:30era. Irailaren 15era arte, interesatuek kultura etxean eman dezakete izena.

Bestetik, pintura tailerra antolatu du kultura etxeak. Interesatuek hilaren 24ra arte eman dezakete izena; horretarako, kultura etxera jo. Urriaren 2an hasiko

dira eskolak, eta ekainera arte, zapaturo eskainiko dituzte. Margotzen ikasi gura dutenek informazio gehiago lor dezakete kultura etxean.

YOGA IKASTAROA, HASITA

Yoga ikastaroa ere badago Eskoriatzan. Astelehenean, hilak 6, hasi zituzten eskolak Aranburuzabala kaleko 24. zenbakian. Ordu eta erdi irauten du eskola bakoitzak. Astelehen, eguazten eta egubakoitzetan elkartuko dira bertan, 10:00etan goizez eta 19:00etan arratsaldean.



Abileziarik gabe ere, pintura tailerlean parte-hartzen dute askok.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

IZEN EMATEA

Begirale ikastaroa antolatu dute euskara elkarteek. Urrian hasi eta maiatzera bitartean, asteburuetan izango dira eskolak. Gainera, aterpetxe batean egondiak egingo dituzte. 250 euro ordaindu beharko dute interesatuek. Izen emateko, Axtrokira jo. Ikastaroan, parte hartzen dutenek, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulua jasoko dute.

Ikasturtea hasiko dute martitzenean Tortolisen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aurten ere herriko txikienek Tortolis ludotekan arratsalde dibertigarriak igarotzeko parada izango dute. Datorren martitzenean irekiko ditu ateak, eta ekintza ugariz betetako asteari emango diote hasiera. Bazkide egin gura dutenek, irailaren 15era arte dute epea.

Tortolis ludotekak martitzenean irekiko ditu ateak. Ikasturtea ondo hasteko asmoz ekintza ugari antolatu dituzte lehenengo aste-rako ludotekako arduradunek.

Astelehenetik ostiralera arratsaldero izango dute erabilgarri bazkideek ludoteka. Tortoliseko kide izan gura dutenek hilaren 15era arte dute aukera. 28 euro kostatuko zaie bazkideetza; hala ere, Axtrokiko Euskara Elkarte-ko bazkide direnek eta anai-arre-

baren bat ludotekako erabiltzaile dutenek beherapena izango dute izena emateko orduan.

BAZKIDEEN AUKERAK

Ludotekako material guztia erabili eta antolatutako ekintzetan parte hartzeko eskubidea izango dute Tortoliseko laguntxoek: jolas librean aritu, musika entzun, bideoak ikusi, eskulanak egin...

Ludotekako bazkideek 3 eta 12 urte bitartean izan behar dute. Bi txanda antolatu dituzte Tortoliseko arduradunek. Arratsaldero, 17:00etatik 18:30era Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako laguntxoak elkartuko dira jolasteko.

Bestalde, 18:30etik 20:00etara Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleen txanda izango da.



Txapelketak amaituta, ehizari ekingo dio eskoriatzarrak.

Jesus Arroiabe seigarren, Valladolideko tiro txapelketan

Z.V.M.

Pasa den asteburuan Valladoliden izan zen Jesus Arroiabe. Kategorietan banatutako Espainiako plater tiroketa txapelketan hartu du parte, eta seigarren geratu da. Abuztuan, berriz, laugarren geratu zen Europako tiroketa txapelketan.

Jesus Arroiabe Valladoliden izan da asteburu honetan kategorietan banatutako Espainiako plater tiroketa txapelketa jokatzeko. 270 parte-hartzaile izan ziren, eta seigarren tokia lortu zuen eskoriatzarrak. "Seigarren geratzea ondo dago, baina ez naiz oso gustura gelditu emaitzarekin", adierazi du.


Bestalde, abuztuko lehenengo asteburuan Andorran jokatu-

ko Europako tiroketa txapelketan parte hartu zuen Jesusek, eta laugarren lekua eskuratu zuen; orain arte Europako txapelketetan lortu duen posturik onena.

KIROLARI GAZTETATIK

Arroiabek urte asko daramatza plater tiroketan. "Kirol horretara plater ikusmen ona izatea ezinbestekoa" dela gogoratu du Jesusek. Gainera, kirol guztietan bezala, abilezia bereziren bat eduki behar da. "Bestela, zaindu arren, kirol horretan ez zara nabarmenduko", gaineratu du.

Baina Jesus ez da nazioarteko kirolaria tiroketa txapelketan bakarrik; izan ere, txirindulari aritu zen talde nazionalarekin frankismo garaian. Bi kiroletan da, beraz, nazioartekoa Jesus.



Tortoliseko lagunek primeran igarotzen dute elkarrekin.




EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Informa zaitez!

Model-in tratamenduak.

Zelulitisa eta gizentasuna:
horiekin bukatzeko osagaiak dauzkagu
Zelulitisari STOP

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA

~

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!
Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Giro polita bai, baina jende gutxi izan da aurtengo Gatzagako Andramaixa jaietan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL


Amaitu dira aurtengo Andramaixi jaiak. Aurreko egubakoitzean hasi eta herenegun eman zieten amaiera. Horretarako, Otxandioko lagunak gerturatu ziren Gatzagara. Hala ere, aurreko egunetan ekimen mordoan eraman dituzte aurrera.

Egubakoitzean jende asko bildu zen herriko plazan, musika entzun eta burua astintzeko prest. Bestalde, zapatuan giro bikaina egon zen herrian. Umeen eguna ospatzeko Gatzaga gaztetxoak bete zen eurentzako antolatutako ekintzetan parte hartzeko. "Puzgarriek, ohe elastikoek eta gainerako jokoei arrakasta izan zuten", azaldu digu Jon Sasiain Kultura zinegotziak. "Trikizio taldearekin, baina, ez zen jende askorik agertu zapatu gauean", aitortu digu.

Domekan 26. Dorletako Ama txirindulari proba egin zen, eta 54 lehiakideetatik Orbea-Olarrako Gorka Amuriza gailendu zen. Berarekin batera bi taldekide iritsi ziren helmugara.

"Astean zehar jende gutxi ibili da, baina jaien azken egunean, eguaztenean, otxandiarrak oinez etorri ziren, eta giro polita jarri zuten herrian", azaldu digu Jonek. Bi herrien arteko lehenengo probak egin zituzten orduan, eta elkar hobeto ezagutzeko baliatu zuten eguna guztiak.

Argazkiak: Aitor Lizarralde/ Z.V.M.



Hegan irten zen gaztetxoa lastoak lurra ukitu aurretik.




Egubakoitzeko kontzertuetara jende ugari gerturatu zen.




Mus txapelketan tranparik egin gabe jokatu ote zuten guztiak!



Pilota partidu interesgarriak izan ziren ikusgai.



Aurtengo proban 54 txirindularik hartu dute parte.




Txikienak eskorgak hartu eta zubia zeharkatzen aritu ziren.



SUTAN

- TXIMINIAK
- EGUR-BARBAKOAK
- ESTALDURAK
(Harri landuaren simulazioa poliuretanoan)




Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?



Erantzuna Udal Euskaltegian

*23 urte / 43 zentro /
maila guztiak /
Ordutegi zabala /
Bekak / HABEko diplomak ...*

HABEren dirulaguntzaz.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 | 20550 ARETXABALETA |
Tel.: 943 79 21 68 | Faxe: 943 79 92 62
Intxaurtxueta 10 | 20540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza |
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

2004/2005
EUSKARA
IKASTAROAK

Eskaintza: Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze, EGA.

Ikastaro bereziak: MINTZAMENA LANTZEKO, SAKONTZE... Informa zaitez!

Erritmoak: Erritmo guztiak.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.
16 urtetik gorakoentzat.

Matrikulatzeko epea: Irailaren 1etik 24ra.

Bulego ordutegia: Goizez: 09:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-19:00

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**ALTO DEBA
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxa: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETA
Tel.eta faxa: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Pintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119



**RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA**

"R.E.L.E."

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ
elektronika**

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



**Margogintza
Dekorativo eta Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN
Iturgintza**

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Petrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasak
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
*Tel.: 943 79 28 41 *Fax: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatzeko sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

**J.J. ITURGINTZA
IRURE**

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187